



**ERABAKIA, *LUIS PÉREZ* JAUNAK KARATE FEDERAZIOKO
HAUTESKUNDE BATZORDEAREN EBAZPENEN AURKA JARRITAKO
ERREKURTSOA ONARTZEN DUENA, FEDERAZIOKO HAUTESKUNDE-
PROZESUAREKIN LOTUTA**

Esp.-zk.: 21/2015 eta 24/2015 (metatuta)

AURREKARIAK

LEHENENGOA.- 2015eko maiatzaren 23an aurkeztutako idazki baten bidez, *LUIS PÉREZ* jaunak errekurtsoa aurkeztu zuen 2015eko maiatzaren 16an Karate Federazioko Hauteskunde Batzardeak 20. aktan hartutako erabakien aurka. Horren bidez, hainbat batzarkidek aurkeztutako errekurtsok onartu ziren, eta, ondorioz, (20. aktan jasotzen diren erabakien azalpen sistematikoa egingo dugu), a) baliogabetu egin zen 2015eko maiatzaren 12an presidentea eta Zuzendaritza Batzardea hautatzeko eginiko batzar nagusia; b) era berean, baliogabetu egin zen presidentearen eta Zuzendaritza Batzardearen aldi baterako izendapena; c) 2015eko maiatzaren 14an eginiko batzarrean atera zen Zuzendaritza Batzardearen "autoizendapena" (sic) bertan behera geratu zen; eta d) batzarrera beste dei bat egin zen Zuzendaritza Batzardea hautatzeko (2015eko maiatzaren 27rako), eta hauteskundeen egutegi berria onartu zen.

2015eko ekainaren 8an aurkeztutako idazkiaren bidez, *LUIS PÉREZ* jaunak errekurtsoa jarri zuen Karateko Euskal Federazioaren Hauteskunde Batzardearen 21. aktan hartutako erabakien aurka. Bi batzarkidek aurkeztutako



errekurtsoak aintzat hartuta honako hau erabaki zen: a) 2015eko maiatzaren 27rako aurreikusita zegoen batzar nagusiaren deialdia bertan behera uztea eta baliogabetzea; b) zentsura-mozioaren ondorioz hauteskunde-prozesu berriari hasiera ematea; c) hautagaitza berriak aurkezteko aukera ematea. Hautaketa horiek indarrean dauden estatutu berriak aintzat hartuta egingo dira; eta d) hauteskundeen egutegi berria onartzea.

Aurkeztutako bi errekurtso horien bidez, errekurtso-egileak eskatu nahi du, funtsean, balioa ematea 2015eko maiatzaren 12an eginiko batzar nagusiari eta batzar horretan aukeratutako hautagaitzari (Hauteskunde Batzordeak izendatu zuen aldi batera).

BIGARRENA- Adierazitako bigarren errekurtsoaren bidez, era berean, kautelazko hainbat neurri hartzeko eskatzen zen. Hala, Batzordeak 2015eko ekainaren 10ean hartutako erabakiaren bidez, partzialki onartu zen errekurtsoaren xedea eta errekurtsoak ebatzi bitartean hauteskunde-prozesua bertan behera geratzea.

HIRUGARRENA- Errekurtsoak izapidetzeko onartu ziren, espedienteak errekeritu ziren eta Karateko Euskal Federazioko Hauteskunde Batzordeari igorri zaizkio. Azken horrek alegazioen idazkia eta hainbat agiri aurkeztu ditu.

Batzordeak, era berean, bertaratutako interesdunei errekurtso horien berri eman die, eta horiek ez dute alegaziorik aurkeztu horretarako emandako epean.

LAUGARRENA.- Bilera horretan, Batzordeak erabaki zuen bi errekurtsoak metatzea, errekurritutako egintzak elkarri oso lotuta daudelako (HALJGAiko 73. artikulua).



ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, hala xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138. b) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3. b) artikuluan. Organo horri ematen diote kirol-federazioen hauteskunde batzordeek hartutako erabakien aurka jartzen diren errekurtsioak aztertzeko eta ebazteko eskumena.

BIGARRENA.- Jarritako errekurtsioek eragiten dituzten gai eztabaidagarriak behar bezala bideratzeko, beharrezkoa da hauteskunde-prozesu luze honetan izandako gertaerak azaltzea. Hala:

a) Karateko Euskal Federazioko hauteskunde-prozesuaren ondorioz, hainbat errekurtsio jarri ziren Kirol Justiziako Euskal Batzordean; zehazki, 9/2013; 12/2013; 13/2013; 23/2013 eta 29/2013 (bi horiek metatu egin ziren) espedientei dagozkienak, eta, azkenik, 48/2013 espedienteari dagokiona.

b) Hizpide dugun kontuan lotura dutenez, 23/2013 eta 29/2013 espedienteetan (metatuak) erabakitakoa azpimarratu behar dugu. Karateko Euskal Federazioko presidentetzarako hauteskundeen hautagaitza aukeratzeari buruzkoak dira, eta 2013ko uztailaren 16an hartutako erabakiaren bidez ebatzi ziren. Hala, partzialki onartu genuen errekurtsioen helburuetako bat; zehazki, baieztatu genuen José Fernández jaunaren hautagaitza ezin zela hauteskunde-prozesurako onartu.

c) Batzorde honek hartutako erabakien aurka hainbat berraztertzeko errekurtsio jarri zituzten zenbait interesdunek. Horietan guztietan, gaitzesteko ebazpena



eman da (horietako bat 2013ko urriaren 10ekoa da, eta bestea 2013ko abenduaren 12koa).

d) 2013ko urriaren 10ean José Fernández jauna -gaur egun federazioko bitarteko presidentea- baztertzeko hartutako erabakiaren aurka interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen. Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako 5. Epaitegian jarraitu da prozedura (149/2014 prozedura arrunta), eta 2015eko apirilaren 9an eman zen epaia. Horren bidez, aipatu errekurtsoa gaitzetsi da eta aurkaratutako ebazpena zuzenbidearekin bat datorrela aitortu da.

e) Epaia eman ondoren (irmoa da, ez zelako errekurritu), Hauteskunde Batzordeak 2015eko maiatzaren 4ko 18. aktan erabaki zuen legez izendatutako hautagaitzak izanik, hauteskunde-prozesuarekin jarraitzea. Horretarako, hauteskundeen egutegi berria onartu zen, eta Ezohiko Batzar Nagusia deitu zen 2015eko maiatzaren 12rako.

f) 2015eko maiatzaren 12an, 19:30ean, Ezohiko Batzar Nagusia egin zen. Hona hemen emaitzak, Hauteskunde Mahaiaren Aktan jasotzen diren bezala: Boto-kopurua guztira: 23; Luis Pérez, 21; Fernando González, 2.

g) 2015eko maiatzaren 13ko 19. aktako erabakiaren bidez Batzarra egin ondoren, Hauteskunde Batzordeak erabaki zuen aldi baterako izendatzea Karateko Euskal Federazioko Zuzendaritza Batzorde berria. Luis Pérez hautatu zuten presidente.

h) Nolanahi ere, Zuzendaritza Batzorde hori aldi baterako izendatu ondoren, hainbat errekurtso jarri ziren (zehazki, bost batzarkidek). Hala, Hauteskunde Batzordeak erabaki zuen, 2015eko maiatzaren 16ko 20. aktan -hemen errekurritua eta 21/2015 espedientea eragin duen arrazoia-, aurreko



izendapena balio gabe uztea, eta, era berean, 2015eko maiatzaren 12an eginiko Ezohiko Batzar Orokorrean ateratako emaitzak baliogabetzea. Hona hemen ematen diren arrazoiak (uste dugu beharrezkoa dela horiek azaltzea):

"Batzarkideek aurkeztu dituzten errekursoetan adierazten da ezin izan zirela bertaratu, ezohiko batzar orokorraren bi deialdi egon zirelako, leku ezberdinetan eta ordu berean, eta gai ezberdinak jorratzeko, helburu berbera izan arren: Zuzendaritza Batzordea aldatzea.

Hori dela eta, batzarkideren batek, hautagaitzak bozkatzeko batzar orokorra egin baino lehen, idatziz eskatu zuen bertan behera uzteko, aipatu arrazoiarengatik.

Egiazki, ulertezina bada ere, batzarkide batzuek (horien artean, Luis Pérez hautagaia) hauteskunde-prozesu lasaia oztopatu dute, eta zentsura-moziorako bi deialdi deitu dituzte aldi berean.

Horrek ageriko nahastea eragin du batzarkideen artean, eta, ondorioz, ez zekiten horietako zeinetara joan behar zuten. Horrek kaltea eragin du parte-hartze demokratikoaren prozesuan. Gure ustez hori zen errespetatu beharreko prozesu bakarra, hauteskunde-prozesua.

Hori dela eta, batzar orokorrean parte hartzeko eta bozkatzeko eskubidea bermatzeko -are gehiago gobernu-organoa hautatzeko egintza denean-, Hauteskunde Batzorde honek, tamalez, maiatzaren 12an eginiko batzar orokorra eta bertan ateratako emaitza baliogabetu behar du. Era berean, xede berbera duen beste deialdi bat egingo du, onetsiko den egutegi berriaren arabera.

Halaber, 2015eko maiatzaren 14an ustez eginiko beste batzar bat ere aipatu behar da. Bertan, Zuzendaritza Batzordearen aurkako zentsura-mozio bat onetsi zen, baldintza bitxi bat ezarrita: baliozkoa izango da baldin eta gaur Luis Pérez jauna Zuzendaritza Batzordeko buru izendatzen ez badute; bera izendatuz gero, ordea, ez du baliorik izango; beste kontu ilun bat, berriz ere nahaste eta segurtasun juridiko falta eragiten duena.

(...)

Era berean, Hauteskunde Batzordearen Erabaki horretan, hauteskundearen egutegi berria zehazten da. Egutegi horretan ezarritakoaren arabera, 2015eko maiatzaren 27an egingo da Ezohiko Batzar Orokorra.



i) Nolanahi ere, Hauteskunde Batzordeak 2015eko maiatzaren 16an (20. akta) ebatzitakoa gorabehera, Hauteskunde Batzorde horrek, 2015eko maiatzaren 26an (21. akta), aurkeztutako errekursoak ikusita eta 2015eko maiatzaren 14an onetsitako zentsura-mozioa ("ez konstruktibotzat" hartzen da) dagoela ulertu behar dela aintzat hartuta, balio gabe utzi da 2015eko maiatzaren 16an hartutako erabakia, eta beste erabaki bat hartu du. Hona hemen akordioak:

"1.- Batzar orokorrak onetsitako zentsura-mozioaren arabera eta Hauteskunde Batzorde honi ematen zaizkion eskumenak aintzat hartuta, batzar orokorra baliogabetzea aipatu zentsura-mozioa baino lehen zeuden baliozko bi hautagaitzak bozkatzeko (hilaren 27rako aurreikusia).

2.- Zentsura-mozioaren kasurako aurreikusita zegoen hauteskunde-prozesuari hasiera ematea baldin eta mozioa konstruktiboa ez bada, ez zegoelako aurreikusita.

3.- Hori dela eta, onetsitako hauteskundearen egutegiaren baitan, hautagaitza berriak aurkeztu ahal izango dira administrazio-organoan. Dena den, estatutuak indarrean egongo dira, eta batzarrak bakarrik aukeratu ahal izango du presidentea. Era berean, hark bakarrik izendatu ahal izango du dagokion Zuzendaritza Batzordea.

Presidentea hautatzeko erroldan, batzar orokorreko kide guztiak egongo dira, eta, pertsona juridikoen kasuan, legezko aurreikuspeni jarraikiz izendatutako ordezkaria.

4.- Xede horretarako, hauteskundearen egutegi berria onestea."

j) Luis Pérez jaunak errekursoa aurkeztu zuen 2015eko maiatzaren 26ko Erabaki horren aurka, eta Hauteskunde Batzordearen isiltasunaren ondorioz, beste hau aurkeztu du Kirol Justiziako Euskal Batzordean (24/2015 espediente-zenbakia dagokio). Errekurtso horren bidez, eta aurrekarien atalean aipatu



dugun bezala, hauteskunde-prozesua bertan behera geratzeko eskatzen zen, eta onartu egin genuen 2015eko ekainaren 10ean hartutako erabakiaren bidez.

k) Bestalde, Hauteskunde Batzordeak hartutako azken erabakiaren ondorioz, adierazi behar dugu Karateko Euskal Federazioaren web orrialdean argitaratu egin dela Hauteskunde Batzordeak 2015eko ekainaren 8an hartutako erabakia, hautagai berrien izendapena eta guzti; LUIS PÉREZ jaunarena eta GORKA ARREGI jaunarena.

HIRUGARRENA.- Aurreko azalpena eman ondoren, Hauteskunde Batzordeak hartutako erabakiak zuzenbidearekin bat datozen aztertuko dugu, errekurtsogileak eginiko alegazioak eta igorritako espedienteetan jasotako dokumentazioa argitzeko.

Lehenik eta behin, argi utzi behar dugu 2012an abiarazitako hauteskunde-prozesuan gaudela, eta prozesu honetan hainbat gorabehera egon direla, adierazi bezala.

Hori esanik, kontuan izan behar dugu hauteskunde-prozesu horretan hainbat hautagaitza egon zirela eta Batzordeak baliozkotzat jo zituela. Beraz, horien aurka egin denean, epaitegietan berretsi dira gure erabakiak.

Hori dela eta, nabarmendu egin behar dugu Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 5. Epaitegiak emandako epaiaren ondorioz, Hauteskunde Batzordeak 2015eko maiatzaren 4ko 18. artan erabaki zuela hauteskunde-prozesuarekin jarraitzea, legez izendatutako hautagaitzak izanik. Horretarako, hauteskundeen egutegi berria onetsi zen eta Ezohiko Batzar Nagusia deitu zen 2015eko maiatzaren 12rako.



Alderdi honi dagokionez, hainbat gauza azaldu nahi ditugu. Jasota geratu da hauteskunde-prozesua bertan behera geratu zela 149/2014 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan auzi-jartzaileak eskatu zuelako kautelazko neurri gisa, baina Epaitegiak 2014ko irailaren 30eko autoaren bidez, ez zuela eskaera onartu. Kautelazko neurria gaitzetsi egin bazen ere, ez zen altxatu hauteskunde-prozesua bertan behera geratzeko prozesua, nahiz eta espedientean jasota geratzen den Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzako Hauteskunde Batzordeak 2015eko urtarrilaren 15ean igorritako mezu elektronikoko batean. Horren bidez adierazten zen ezohiko batzar orokorra 2015eko otsailaren 28rako deituko zela, Epaitegiak kautelazko neurria gaitzetsi ondoren. Ez dakigu zergatik ez zen horrela jardun, baina deialdia ez zen egin 2015eko maiatzaren 4ra arte -gaiaren gaineko epaia eman ondoren-, eta adierazten da 2015eko maiatzaren 12an egin zela.

Hori bai, azaldu dugun hauteskunde-prozesuan, aldi berean, 2015eko apirilaren 15ean, Batzar Orokorreko hiru kidek (Luis Pérez buru izanik), federazioaren estatutuetako 20. artikuluan xedatutakoa oinarri hartuta, bitarteko presidenteari eskatu zioten Batzar Orokorraren deialdia egiteko, zentsura-mozioa aurkezteko. Batzarkideen tesiaren arabera, ez zenez deialdi hori egin ezarritako epean, hiru batzarkideek, 2015eko maiatzaren 4an, eta Karateko Euskal Federazioaren estatutuetako 20. eta 21. artikulua aintzat hartuta, presidenteari eskatu zioten ezohiko batzarreko deialdia egiteko. Eurek egin zuten deialdia, eta 2015eko maiatzaren 12an jarri zuten. Orduan, 2015eko maiatzaren 4an bertan, Hauteskunde Batzordeak egin zuen Ezohiko Batzar Orokorrerako deialdia (Zuzendaritza Batzordea aukeratzeko) 2015eko maiatzaren 12rako.

Jakinda Hauteskunde Batzordeak 2015eko maiatzaren 12rako deitu zuela Ezohiko Batzar Orokorra, zentsura-mozioa proposatu nahi zuten hiru batzarkideek 2015eko maiatzaren 7an aldatu zuten Batzarraren data, zentsura-mozioak aurkezteko, eta 2015eko maiatzaren 14rako jarri zuten. Egun horretan



egin zen Batzarra, gai-zerrendan puntu bakarra izanik: egungo zuzendaritza batzordearen eta bitarteko presidentearen (José Fernández jauna) aurkako zentsura-mozio konstruktiboa egitea, eta Luis Pérez jauna presidente izendatzea.

Hainbat gauza aipatu behar dira; izan ere, alde batetik, **Hauteskunde Batzordeak eginiko deialdia zegoen, 2015eko maiatzaren 12an Batzar Orokorra egitekoa, hain zuzen, Zuzendaritza Batzordea aukeratzeko**, eta beste deialdi bat ezohiko batzar orokorra egiteko, hasiera batean 2015eko maiatzaren 12rako, eta **ondoren 2015eko maiatzaren 14an egiteko deitua, hain zuzen, egungo zuzendaritza batzordearen aurkako zentsura-mozioa aurkezteko**.

2015eko maiatzaren 12rako deitutako Hauteskunde Batzordearen batzarra inolako gorabeherarik gabe egin zen, eta, bertan, bozketa egin ondoren, Luis Pérez jauna izendatu zuten presidente (aldeko 21 boto, eta Fernando González hautagaiak 2 boto). SEI (6) batzarkide ez ziren bertaratu.

Batzar hori egin ostean, Hauteskunde Batzordeak aldi baterako Zuzendaritza Batzordea izendatu zuen 2015eko maiatzaren 13ko 19. aktan. Hala ere, bost batzarkidek aurkeztutako errekurtsoen ondoren, Hauteskunde Batzordeak erabaki zuen aldi baterako izendapena baliogabetzea eta baliogabetzat jotzea egindako hauteskunde-batzarra, aurrekarietan azaldu dugun bezala.

Jarraian, hauteskunde-batzarraren baliogabetzea eta aukeratutako zuzendaritza batzordearen aldi baterako izendapenaren baliogabetzea aztertuko dugu.

Errekurtsio-egileek baieztatu zuten, Hauteskunde Batzordeari igorritako idazkietan, bi batzarretarako deia jaso zutela, ordu berean eta leku



ezberdinetan, nahastea eragin ziela bertaratzean, eta horregatik ezin izan zutela botoaren eskubidea baliatu. Horregatik eskatzen dute egindako batzarra baliogabetzea. Hauteskunde Batzordeak onartu egin zuen eskaera.

Bada, Hauteskunde Batzordeak errekurso-egileen errekurtoa gaitzetsi eta behin betikotzat jo behar zituen izendapenak, honako arrazoi hauengatik:

Lehenik eta behin, Hauteskunde Batzarrak deialdi bakarra egin zuelako, 2015eko maiatzaren 12rako, eta hori besterik ez zelako argitaratu federazioaren web orrialdean. Beste deialdiari dagokionez, ondoren bertan behera geratu zena, data aldatu zuen maiatzaren 14ra, eta hori beste batzar bat zen, hauteskunde-prozesutik kanpoko. Kultura sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduak, hauteskunde-erregelamenduak egiteko eta EAEko eta lurralde arteko kirol federazioen hauteskundeak egiteko irizpideak ezartzen dituenak, honako hau xedatzen du 2.2 artikuluan: **“Hauteskunde-erregimen honetatik kanpo gelditzen da federazioen baitan egiten den zentsura-mozio oro.”**

Hau da, batzarkide batzuek zentsura-mozioa aurkezteko deitutako batzarra ez da hauteskunde-prozesu bateko batzarra; beraz, nekez justifika daiteke hauteskunde-prozesu batean Euskal Federazioko Batzarrerako hautatutako kide batzuek eragindako nahasteari buruzko baieztapen hori.

Bistan denez, ez da egoerarik onena hauteskunde-prozesu batean batzarrerako dei bat egitea eta aldi berean batzarrerako beste deialdi bat egitea zentsura-mozio bat aurkezteko. Era berean, zaila da ulertzeko batzarkide batek ez jakitea zein den hauteskunde-prozesu batean egin daitekeen deialdia. Gainera, organo bakarrari dagokio deialdi hori egitea -hauteskunde batzordeari-, eta Karateko Euskal Federazioaren orrialdean argitaratzen da.



b) Gainera, eta bigarrenik, errekurso-egileek hiru lerroko baiezpena besterik ez dute egin, baina ez dute inolako justifikaziorik aurkeztu zentsura-mozioa aurkezteko batzarrerako deialdia nola jaso zuten frogatzeko. Hala, zalantza justifikatua eragin zuen, eta, era berean, aldi baterako presidente izendatutakoari ere ez zitzaizkion helarazi aurkako alegazioak, aurkeztutako errekursoen aurka alegazioak aurkeztu ahal izateko.

c) Hirugarrenik, 2015eko maiatzaren 12rako zentsura-mozioa aurkezteko hasierako deialdia baliogabetu egin zenez, berriz ere deitu zen batzarra 2015eko maiatzaren 14rako. Beraz, ez ziren aldi berean bi batzar egin.

d) Hori dela eta, kontuan hartu da ez dagoela arrazoirik Hauteskunde Batzordearen batzarra baliogabetzat jotzeko, eta, era berean, ez dago arrazoirik pentsatzeko egindako batzarrean bere balioan eragiteko moduko irregulartasunak egon zirenik. Bozketaren emaitza ez litzateke aldatu behar bost errekurso-egile bertaratu zirelako. Beraz, 2015eko maiatzaren 16ko erabakiak (20. akta) baliogabetu egin behar dira, eta une horretatik aurrera jarraitu hauteskunde-prozesuarekin, Karateko Euskal Federazioko Zuzendaritza Batzordearen behin betiko izendapena eginda.

Eman dugun ebazpen honen ondorioz, baliogabetu egingo dira 2015eko maiatzaren 16ko erabakiaren ondorengo egintzak; hau da, Hauteskunde Batzordearen 2015eko maiatzaren 26ko (21. akta) erabakia eta 2015eko ekainaren 8koa (22. akta), hautagaitza berriak izendatuta; LUIS PÉREZ jaunari eta GORKA ARREGI jaunari jakinarazita; izan ere, ondorio saihestezina da horiek baliogabetzea, 2015eko maiatzaren 16ko erabakiak baliogabetzat jo baitira, eta hauteskundeen emaitzen behin betiko izendapenak dakar 2012ko hauteskunde-prozesua amaitzea.



Era berean, eta adierazi bezala, Karateko Euskal Federazioko presidentearen eta Zuzendaritza Batzordearen izendapenaren gaia ebatzita, erraz uler daiteke 2015eko maiatzaren 14an eginiko Batzar Orokorrak -zentsura-mozioa aurkeztuta- ez balio juridikorik ez izatea hauteskunde-prozesuan eta presidenteari eta hark izendatutako Zuzendaritza Batzordeari dagokionez.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

ERABAKI DU:

1. Onartzea LUIS PÉREZ jaunak jarritako errekurtoa. Karateko Euskal Federazioko Hauteskunde Batzordeak 2015eko maiatzaren 16ko 20. aktan hartutako erabakien aurka jarri zuen errekurtoa, eta erabaki horiek baliogabetu egin dira.
2. Bidezkoztat jotzea Karateko Euskal Federazioko presidentearen eta Zuzendaritza Batzordearen behin betiko izendapena, 2015eko maiatzaren 13ko 19. aktan jasotzen denarekin bat etorriz.
3. Baliogabetzat jotzea Hauteskunde Batzordeak 2015eko maiatzaren 26an (21. akta) eta 2015eko ekainaren 8an (22. akta) hartutako erabakiak.
4. Hauteskunde-prozesuan inolako ondorio juridikorik gabekotzat jotzea 2015eko maiatzaren 14an eginiko Ezohiko Batzar Orokorra. Bitarteko presidentearen aurkako zentsura-mozioa aurkeztu zen bertan.
5. Balio gabe uztea Batzorde honek 2015eko ekainaren 10ean hartutako kautelazko neurria. Hala, hauteskunde prozesua bertan behera geratuko da,



Karateko Federazioaren Zuzendaritza Batzardearen izendapenari buruz epaia eman delako.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzardeari hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 1a

José Ramón Mejías Vicandi

Kirol Justiziako Euskal Batzardearen presidentea